



Pil-pilean

TRUKIA
Soraluzeko hilabetekaria
2022ko apirila · 385 alea

EOLIKAK KARAKATEN
PROIEKTUAREKIKO
KEZKA HERRIAN





PIL-PILEAN 385

2022ko apirila

Azaleko argazkiaren egilea:
Ekaitz Uzin.

Aurkibidea

- | | | |
|----|--|---|
| 4 | Elkarrizketa Efren Flores | IRITZIA |
| 6 | Begira Skate Parkeko murala | 3 Neuretik Arrate Gisasola <i>Librean ari</i> |
| 8 | Zer berri Aktualitateko albisteak | 18 Gutunak Roke Akizu <i>Bide-orri bateratua baso politketan</i> |
| 14 | Argazki bidez Korrika | 18 Komiki tira |
| 16 | Plazan bazan Umeendako jolasak | 19 Hausnarketa Herrian ala kanpoan erosten duzu? |
| 20 | Erreportajea Eoliken proiektuarekiko kezka | 19 Puntua Gaizka Azkarate <i>Apirileko tenporak</i> |
| 26 | Kirola Hockeya eta pilota txapelketa | |
| 27 | Kultura Brassensen kontzertua eta kultur agenda | |
| 29 | Historia Elurra apirilean | |
| 30 | Gure artistak Jon Errazu | |
| 32 | Sakonean Aleu Cid | |
| 34 | Zerbitzuak Zorion-agurrak, oroitzak, iragarki laburrak... | |



Pil-pilean herri komunikabidea

TOKIKOM

Argitaratzailea
Pil-pilean Euskaltzaleen Topagunea
Errabal kalea 15-1, PK 27
20590 Soraluze

Erredakzioa
Ubane Madera
ubane@pilpilean.eus
Egoitz Unamuno
egoitz@pilpilean.eus
605 706 086

Publizitatea
publizitatea@pilpilean.eus

Zuzentzailea
Miren Gallastegi

Diseinua
Goiena
Oier Larreategi (moldaketak)

Maketazioa
Oier Larreategi

Inprimategia:
Gertu Koop.

Banaketa:
Pil-pilean Ekoizpena

Lege Gordailua:
SS-537-2000

Tirada: 2.100 ale

Babesleak

GOKI
erreformak

SORALUCE



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



**SORALUZEKO
UDALA**

Librean ari



ARRATE GISASOLA

Menu zerrenda luzeetan galtzen den horietakoa nauzue; dena gustuko, dena on, aukeratzeko orduan dena zalantza. Horrelakoetan aukera gutxiagorekin hobe dela pentsatu izan dut. Baina hara, etorri zitzaizkigun, eta ez aspaldi, menu itxien garaiak. Menu itxi eta garestiegiak. Hari-muturrez beteriko menuko gai itxi hitsak. Hori ez da ba hobea. Menu zabaletan bezala, aldizkariko tarte honek ematen du librean aritzeko aukera. Baina askotan, ustez aske gabiltzanean galtzen gara gehiago. Gaur puntua jarrita nahiago nuke, edo gaia emanda, da!

Libre aritzeko gaur txikian nahiago. Jon Maiak eman dit *Kantu bat gara* laneko esaldi batekin akuilua: "Gaur ez dut kantatu nahi epika, nahiago dut muxu bat hondartzan". Akuilu hori lagun, Soraluzeko hondartzako muxu baten berri eman nahi dizuet. Soraluzeko Bertso Eskola. Gaia emanda edo puntuak elkarri ipiniz, baina libre aritzeko aukera ematen duen gunea eta jende artea. Bakoitzak bere neurria, doinuan, norbere gorputzetik eta gogotik. Kantuan, idatziz, neurria norbere neurria. Hilean behin elkartzeko gara. Batzuetan hiru lagun, hurrengoan bost. Bertso asko entzundakoa, bertsotan dakiena, edo bertso bat sekula kantatu ez duena...

Bertso sortak ere aztertu eta kantatzen ditugu eskolan. Zahar zein berri. Behin *Gerrako gure ibilerak* bertso sorta izan genuen hizpide. Gerran etsaiari aurre nola egiten zioten jasotzen dituen lau bertso. Hobe esanda, gerratik ihes nola egiten zuten azaltzen duten bertso sinpatikoak. Azken bertsoari tiraka egin dut moldaketa, neuk ere ihes, gaur egungo gai potoloei ihes, epikari ihes. Egunerokoan ere hemendik gehiago behar dudala sentitzen dudalako askotan; arnasteko, bizitzeko, egiteko eta ekiteko.

*Izugarrizko bizimodua
Jarri digute oraintxe:
Buru hauste ta sufrimendutik
Bonoak daude sobrante.*

*Nahiago dut muxu bat hondartzan,
horrekin gaur nik bastante.
Gauza "txikienekin" gozatu
Holaxe bai elegante.*

Eta zein da zure hondartzako muxua?

SORALUZKO HONDARTZAKO MUXU BATEN BERRI EMAN NAHI DIZUET: BERTSO ESKOLA

“Egunean 1800 jatordu ematera heldu gara”

TESTUA ETA ARGAZKIA: EGOITZ UNAMUNO.

Efren Flores (Eibar, 1953) Zaporeak elkarteko boluntarioa da eta hiru aldiz izan da Greziako kanpalekuetan, sukaldari lanetan edota bestelako zereginetan laguntzen. Astelehenean, han ikusitakoak kontatu zituen udaletxeko batzar aretoan eskaini zuen hitzaldian.

Zer da Greziako kanpalekuetan ikusi duzuna?

Ikusi ezean zaila da kontatzea hura zelakoa den. Ikusten duzun lehen egunean pentsatzen duzu, ‘baina zer da hau?’. Kontzentrazio esparruak dira, bere zentzurik gordinenean. Ez dakit zenbat dauden, lau, bost edo gehiago. Han barruan ez dute urrik, ez komunik ez ezer... Emakumeek badakite gaez komunera joaten badira bortxatu egingo dituztela eta senarrak laguntzen badie, mugikorra lapurtu eta jipoitu egingo dituztela. Eta esparruetatik kanpo daudenak, berriz, Morian, olibondoan artean, milaka pertsona... Kanpin denda bat ematen diete eta punto. Hangoa da gizapetiko bizimodua ez, gizapetikoaren ondokoa.

Hasierako errefuxiatuak siriarrak ziren, baina orain herrialde guztietako jendea dago: libiarrak, palestinarrak, iraniarrak eta gehien gehienak afganiarrak.

Zerk hunkitu zaitu gehien?

Bakarrik dauden umeen egoera oso gogorra da. Asko pateretan iristen dira eta ez dute erreferentziatzeko pertsona bakar bat ere. Gogoratzen dut behin zela kamioi batek harrapatu zuen jolasean zebilen mutiko bat... Barbaridade bat da.

Hori dena ikustea gogorra da, baina ume batek “thank you” esaten dizu eta momentu horretan sentitzen duzunak ez du preziorik.

Zaporeak elkarteak zein funtzio betetzen du?

Nik beti esaten dut Zaporeaken funtzioa dela ‘joan, jaten eman eta bueltatu’ eta gainerako guztia bigarren mailakoa dela. Ekimen txikia da, baina pentsa, sei urtean 3 milioi jatordu baino gehiago banatu dira.

2016an Zaporeakek janaria prestatu eta banatzeko lehen sukaldea ipini zuen Kiosen,

Acnurren kanpalekuaren ondoan eta egun batez, Egunsenti Urrekara alderdiko neonaziek dena suntsitu zuten. Bitartean, errefuxiatuek etortzen jarraitzen zuten eta Greziako gobernuak erabaki zuen kontzentrazio-esparruak sortzea. Kiosen bakarrik, 15.000 herritar pilatu zituzten. Han, egunean 1.800 jatordu ematera heldu ginen.

Zaporeak beti izan da oso deserosoa Greziako gobernuarentzat, han gertatzen denaren berri ematen duelako hemen eta hori ez zaie batere gustatzen. Hori dela eta, momentu batean Gobernuak debekatu egin zion Zaporeaki Kiosen sartzea eta orduan Atenasen bilatu genuen sukalde bat. Handik lortu zen Lesbosen sartzea eta gero muntatu zuten Moriako esparrua. Hura erre zen. Gero, Karatapen ipini zuten beste bat eta horrela. Momentu honetan, Zaporeakek, batuz beste, 1.300 jatordu ematen ditu egunean. Karatapen 1.300 pertsona daude, gainerakoak, 16.000 pertsona inguru, kontinentera bidali dituzte. Imaginatu momentu honetan Atenas nola dagoen: jendea kalean lotan, ezer gabe, paperik gabe... Izugarria da. Gainera ejerzitoak jazartzen ditu, kartzelan sartzen dituzte eta abar.

Bitartean, Europak milioika euro bideratzen ditu Turkiara, bertatik igaro nahi duten milaka herritarri pasabidea ixtearen truke.

Europar errefuxiatu batzuei eta besteiei ematen zaien tratu ezberdina ikusita, zer pentsatzen duzu?

Ba, orain telebistan agertzen ez diren arren, beste herrialde batzuetako errefuxiatuak ere hor daudela eta haiek ere gu bezalako pertsonak direla. Gainera gutako asko ere errefuxiatu izandako pertsonen ondorengoak gara.

Hemengo herritarrei zein mezu helaraziko zenieke?

Zaporeak denok garelako eta batez ere, herritarrek eta herri txikietako udaletxeak, eurei esker iristen zaie janaria hango pertsoneri. Bestalde, animatu nahiko nuke jendea boluntario moduan joatera. Orain arte Euskal Herritik 600 boluntario inguru joan dira Greziara. Gehiago behar dira eta merezi du. Sartu Zaporeak.eus webgunean eta eman izena.



"Plazer bat da herrian pintatzea"

ARGAZKIA: JOKIN OREGI MR. SORTWO

TESTUA: UBANE MADERA ZANGITU

Apirilaren hasieratik, koloreek eta marrazkiek edertu dute Skate Parkearen gristasuna, Donostian bizi den Jokin Oregi *Mr. Sor2* artista soraluzetarrak egindako muralari esker. "Lekuari kolore pixka bat ematea zen helburuetako bat eta nik beti pintatzen ditut erretratuak. Aniztasuna egoteko, koloredun pertsona bat eta neska bat daude margotuta(...) ea jendeak gustuko duen, batez ere, hemen egoten diren gazteek", esan zuen artistak. Sei bat urte daramatza *Mr. Sor2*-k berak maite duen ogibidetik bizitzen, "egunero 8 ordu edo gehiago sartzen ditut, beste edozein lanbidetan bezala", dio. Aurten, baditu beste hainbat enkargu, tartean bat Soraluzerako, Munua frontoiaren frontisaren atzeko paretarako murala.







Maria Rosa Congregado eta Iñaki Iñarra harategian, atzo, eguena.



Estazio 2ko lokala.

Eroski eta Iñarra aurrera

Soraluzen Eroski City motako saltoki bat zabalduko dutela konfirmatu dute Eroski Taldetik, bestalde, herritar bat ikasten eta praktiketan ari da Iñarra harategia ixten denerako, berak negozioarekin segitzeko

Aurten, aldaketa handiak izaten ari dira eta izango dira herriko saltoki-taberna alorrean.

Batetik, atzo, eguena, Eroski Taldetik konfirmatu zuten Soraluzen saltoki bat zabalduko dutela. Are gehiago, azken asteotan Eroski City-a zabaltzeko aurrerapausoak ematen segitzen dute. Besteak beste, dagoeneko eskuratu dute saltokirako lekua Estazio kalearen 2. zenbakian eta Soraluzeko Udalean aurkeztutako proiektuaren prozedura burokratikoak aurrera darrai. Hori bai, publikoki behintzat, ez dute jakinarazi zein epetarako duten aurreikusita saltokia zabaltzea.

Iñarra harategia

Bestetik, udan ixtekoa zen Iñarra harategiak jarraipena izango du, Maria Rosa Congregado Torres soraluzetarrak dauka harategiarekin segitzeko asmoa. Abuztuaren amaieran hasiko da bertan lanean. "Funtzionatzen ari den negozioa da, bertatik bizitzeko aukera dago eta zerbitzua ematen du, beraz, jarraipena eman behar zaio. Bestela zer? Goiko harategia itxi, hau itxi, arrandegia itxi... Herritik kanpora joan beharko ginatke erosketak egitera. Iñaki eta biok ondo konpontzen gara, oso eskuzabala da. Bera erakusteko

gogotsu dago eta ni ikasteko ere bai. Martxotik nabil berarekin ikasten eta apirilean harakin ikastaroa egiten ere banabil. Bestalde, astean birritan etortzen naiz harategira praktikatzera. Abuztuaren amaieran hasiko naiz bertan lanean eta Iñakik urte amaierara arte lagunduko dit".

Bi taberna itxita

Tabernei dagokienez, berriz, apirilean Edurtza taberna itxi egin zuten. Azken bost urte inguruan tabernaren kudeaketaz arduratu direnek laga egin zuten, "arrazoi pertsonalengatik". Hilabete gutxiren buruan, herrian itxi den bigarren taberna da; lehenago, Gaztelupe ere itxi zuten, hura ere, Soraluzeko taberna mitikoetako bat; azken hori salgai jarri dute.

CONGREGADOK ABUZTUAREN AMAIERAN HARTUKO DU IÑARRAREN HARATEGIA



Hari-lanak egiten dituen taldeko hainbat kide, Ukrainarako materiala erakusten.

Hari-lan solidarioak egiteko deia

Orain, Ukrainarako mantak, txanoak eta beste egiten ari dira baina Lesbosera eta bestelako lekuetara ere bidali dituzte

Hari-lanak egiten dituen Soroluzeko taldeak herrikideak gonbidatu nahi ditu taldean egiten ari diren hari-lan solidarioetan lagundu dezaten. Azken asteotan, artilezko hiru manta eta txanoak egiten ari

dira Ukrainara bidaltzeko; artilezko mantaren kasuan, 16x16ko laukiak egin eta elkarri josita osatu dute tapakia. Lehenago, berriz, Lesbosera bidaltzeko materiala landu izan dute, adibidez. "Sortzen diren

beharren arabera toki batera edo bestera bidaltzen dugu" esplikatu dute.

Debako Kooperazio Taldea

Debako parrokiaren bitartez helarazten diete materiala beharra dutenei, hango Hirugarren Munduarekiko Kooperazio Taldea baliatuta, hain zuzen. Soroluzeko hari-lanen taldea astean behin elkartzen da hari-lanak egiteko, Tolarekuan, Anaren eta Txaroren gidaritzapean.

"Taldean 16 lagun gara, beraz, taldea bera beteta dugu. Baina hari-lan solidarioetan lagundu nahi duenak etxean lan egin dezake eta gero landutakoa guri eman. Adibidez, Elgoibarko andre batek lan mordoan egiten ditu etxean, osasun kontuengatik ezin delako ia kalera irten. Beraz, Soroluzeko beste norbait prest baldin badago hari, puntu, joste, gantxilo, bainika... lanak egiteko, gurekin harremanetan jar dadila eta egin beharreko guztia esplikatuko diogu", esan du Anak. Harekin harremanetan jartzeko: 676 89 61 55.

Atzerrira bidalitako Soroluzeko 74 gerrako-ume identifikatuta, oraingoz

Gerrako-umeak identifikatu eta informazioa jasotzeko ikerketaren baitan, dagoeneko 74 soroluzetar identifikatu ditu Intxorta 1937 kultur taldeak. Xehetasunen arabera, Frantziara bidali zituzten 33 (gero 8 Kataluniara pasatu ziren); Belgikara 20; Errusiara 13; Ingalaterrara 4 eta beste 3 ez dakite nora.



Orbea-Gallastegi familiako umeak.

Intxorta elkarteak gogora ekarri du maiatzaren 5ean, 12an eta 19an, 10:00etatik 12:00etara eta 18:00etatik 20:00etara Tolarekuan izango direla gerrako-umeen gaineko informazioa jasotzeko.

"Toralekuan 74 ume horien izen-abizenak eta joandako herrialdeak panel batean jarrita egongo dira, herritarren laguntzarekin osatzeko. Bizirik dauden pertsona hauen testigantzak edo senideenak jasotzeko prest gaude".

"Dislexiak ikasketa prozesuari eragiten dio, idazteari eta irakurtzeari"

CARMEN ANDERSON GIPUZKOAKO DISLEXIA ELKARTEKO KIDEA

AINHOA ANDONEGI DKT

Carmen Anderson Dislegiko (Gipuzkoako Dislexia Elkarte) kidea da, eta martxoan Elgoibarren izan zen dislexiari buruz hitz egiten, Debabarreneko Dislexia Taldea aurkezteko ekitaldian.

Gipuzkoan sortu den eskualde mailako lehen ordezkari da hau, eta nagusiki Elgoibarren lan egingo badute ere, atek zabalik dituzte bailarako gainerako herrientzat ere.

Dislegiko (Gipuzkoako Dislexia Elkarte) sortzaileetako bat zara. Zerk eraman zintuen elkartea sortzera?

Dislexia duten bi seme ditut, eta haiek izandako esperientziek bultzatuta, nire egoera berean zeuden beste guraso batzuekin jarri nintzen harremanetan. Nire esperientziak eta beraienak partekatzen hasi ginen, eta horrek eraman gintuen Gipuzkoako Dislexia Elkarte (Dislegi) sortzera. Ni Zeelanda



Berrikoa naiz, baina 22 urte daramatzat Euskal Herrian, eta gaur egun Donostian bizi naiz. Hori dela eta, elkartearen egoitza nagusia Donostian daukagu, baina saiatzen gara Gipuzkoako eskualde guztietara iristen. Orain Elgoibarren sortu dute talde bat Debabarrenean dislexia duten pertsonen laguntzeko eta haien familiak hezteko, ikastexeekin elkarlanean jarduteko eta azken

batean, dislexia ezagutzera emateko. Gipuzkoan sortu den eskualde mailako lehen ordezkari da, baina espero dugu azkena ez izatea. Gu denok boluntarioak gara eta zaila egiten zaigu probintzia osora iristea, beraz, horrelako ordezkariak oso garrantzitsuak dira guretzat. **Talde horrekin elkarlanean, hain zuzen, dislexiari buruzko hitzaldia eman zenuen Elgoibarren. Zer da dislexia?**

Hizkuntza prozesatzeko garunak daukan zailtasuna da, eta idazteko zein irakurtzeko gaitasunari eragiten dio. Etimologikoki hizkuntzaren zailtasuna esan nahi du, eta gaur egun, irakurtzean ager daitekeen arazotzat hartzen da, baina ez dauka arazo intelektual, kultural edota emozionalekin inongo erlaziorik. Ez zaio interes edo motibazio faltari lotu behar, ezta adimen urritasunari ere. Argi utzi nahi dut ikasketa prozesuari eragiten dion nahasmendua dela dislexia, baina ez dela gaixotasun bat. **Zerk eragiten du dislexia?**

Genetikak zerikusia dauka, eta horregatik, elkartera etortzen zaizkigun kideei lehenengo galdetzen dieguna zera da: ea familian aurrekaririk baduten. Eta gehienetan egoten dira aurrekariak, baina askotan diagnostikatu gabeak. Askok esaten digute bere senideren batek ikasteko arazoak zituela, oso nota txarrak ateratzen zituela, baina oso azkarra zela. Argi utzi nahi dut dislexiak ez daukala adimenarekin zerikusirik. Dislexia duten ume asko oso argiak dira, bizkorrak eta irakaslearen galderak berehala erantzuten dituzten horietakoak, ahozko hizkuntza



Dislexia elkarteko kideak. AINHOA ANDONEGI

prozesatzeko arazorik ez dutelako. Irakurtzean eta idaztean agertzen dira arazoak. Normalean, dislexia duten pertsoneri asko kostatzen zaie irakurtzen ikastea, ez dituzte kontzeptuak ondo prozesatzen, kaligrafia txarra izaten dute, ortografia arazoak...

Kontzientzia fonologikoa apur bat murriztuta izaten dute pertsona hauek eta horrek sortzen ditu arazoak, baina bakoitzak bere zailtasunak ditu eta ez die denei modu berean eragiten. Batzuek azkarrago irakurtzen dute besteek baino, kontzeptuak hobeto barneratzen dituzte; beste batzuek azkar irakurtzen dute, baina ez dute ezer ulertzen...

Zein adinetan agertzen da?

Haurtzaroan agertu daitezke seinaleak. Esaterako, normalean, beranduago hasten dira hitz egiten, ez dituzte soinuak ondo ahoskatzen, eta silabak jan edo gehitzen dituzte hitzetan... Gauzak izendatzea ere kostatzen zaie, hau da, zerbait deskribatzerakoan hitz zuzena burmuinetik ahora eramatea

kostatzen zaie. Gero irakurtzen eta idazten hasten direnean, seinale horiek areagotu egiten dira: motel irakurtzen dute, atzamarrarekin markatzen dute irakurri beharreko letra

Debabarreneko elkarte

Gipuzkoako Dislexia Elkartetik Debabarreneko Dislexia Elkarte sortu dute, zenbait familiak zituzten beharrei erantzuteko. Momentuz, Elgoibarko kideak daude taldean bakarrik, eta, beraien lan esparrua ere Elgoibar izango da nagusiki, baina bailarako gainerako herrietan ere zabalik dituzte ateak, eta, beharra duen edonori laguntzeko prestutasuna erakutsi dute. Harremanetan jartzeko honako helbidera idatz daiteke: dislegidebabarrena@ni.eus

edo silaba bakoitza, irakurritakoa ez dute barneratzen... Egia da hitz egiten, idazten edo irakurtzen hasten direnean horrelakoak oso ohikoak direla edozein umerengan, baina horrek ez du esan nahi denek dislexia dutenik. Askotan seinale horiek normalizat jotzen ditugu eta oharkabean pasatzen zaizkigu, normala delako irakurtzen, idazten edo hitz egiten ikasteko prozesuan zailtasunak agertzea; denek ez dute dena lehenengoan ikasten.

Zein da orduan dislexia detektatzeko modua?

Irakaslea izaten da normalean jabetzen lehenengoa. Ordu asko ematen dituzte eskolan eta irakasleak jakiten du hoberen ume bakoitzak zertan daukan zailtasuna. 5-6 urteren bueltan detektatu daiteke dislexia. Ikastetxeek test batzuk dituzte umeei probak egiteko, eta diagnostiko zehatza egiteko balio ez badute ere, dislexia izateko arriskuez ohartarazteko balio dute. Eskolaren papera oso garrantzitsua da dislexia detektatzeko.

Zuzentzen al da dislexia?

Landu egin daiteke, eta eskolaren, familiaren eta logopeda baten laguntzarekin esaterako, asko hobetzen da, baina dislexia ez da zuzentzen inoiz. Ikasi egiten da dislexiarekin bizitzen eta dislexiari izkin egiten. Trikimailuak ikasten dituzte dislexia dutenek eta horrela moldatzen dira ikasketa prozesuan, baina umetan dislexikoa dena, nagusitzean ere halaxe izango da. Baina lanketa zehatz batzuk eginez dislexikoei ere ikasten dute ondo irakurtzen, kontzeptuak barneratzen, idazten... Umetan

ZER BERRI

umeak esponjak direla esaten dugu, eta horrek esan nahi du beren burmuinak gauza berriak ikasteko gaitasun handia duela. Baina burmuinaren malgutasun hori 10 urtetik aurrera gutxitzen joaten da; horregatik, garrantzitsua da dislexiaz ahalik eta azkarren jabetzea. Zenbat eta lehenago hasi lanketa horrekin, lehenago ikasiko du irakurtzen, eta horrek ikasketa prozesua erraztuko dio umeari. Eskoletan Berritzegunetik egiten zaizkie umeei probak, eta bestela, alor pribatutik ere

egiten dira probak. Oso garrantzitsua da eskoletan dislexia zer den jakitea eta bere ezaugarriak ezagutzea, ondo bideratu ahal izateko. Familak normalean ez du ulertzen bere seme edo alabak zergatik dituen hainbeste zailtasun ikaste prozesuan eta eskolara jotzen du. Horregatik oinarrikoa da eskolaren papera.

Zenbat jenderi eragiten dio dislexiak?

Azken ikerketen arabera, mundu mailako populazioaren %6-%15ari eragiten dio. Guk

datua biribilduta ematen dugu, eta %10eko portzentajea erabiltzen dugu. Dislexia dutenek ahalegin handia egiten dute ikasteko, baina, hala ere, askotan emaitzak ez dira onak izaten eta horrek frustrazio handia eragiten die. Ahalik eta lasterren detektatzea inportantea da, zein egokitzapen behar dituzten jakiteko eta lanak horretara bideratzeko. Beraientzako material egokia prestatzeak asko laguntzen du: orri txuriak, letra beltza tamaina egokian...

Itsaspeko bolkanen aztarnak

Hiru geldiuene nagusi egingo dituzte, Elgoibarko, Eibarko eta Sorluzueko haitz igneoak ikusteko

Geologia ekimenak irteera gidatua antolatu du maiatzaren 8rako, *Itsaspeko bolkanek ahoa ireki zutenekoa* izenburupean. Irteera debaldekoa da eta plazak mugatuak dira (25). Izen-ematea zabalik dago, euskarazko zein gaztelerazko irteeretarako, Geolodiaren webgunean.

Elgoibartik abiatu

Irteerak Elgoibartik abiatuko dira: 09:00etan euskarazko irteerakoak eta 10:00etan gaztelerazkoak. Ibilbidean zehar Elgoibarko, Eibarko eta Sorluzueko haitz igneoak ikusiko dituzte, hiru geldiuene nagusitatik abiatuta: lehen geldiuenea, Elgoibarren izango da, Olaso industrialdean; bigarrena, Eibarren, Azitaingo



Sorluzueko bidegorria.

industrialdean; eta hirugarrena, Sorluzen, Olako zubian, bidegorriaren hasieran. Webgunean zehazten dutenez, leku batetik bestera norbere autoan mugituko dira; hortaz, beharrezkoa izango da irteerara norbere ibilgailua erotea.

Manifestazioa eta sinadura bilketa

Pentsiodunen Mugimenduek antolatuta, maiatzaren 12an elkarretaratzea egingo dute Gasteizen, Legebiltzarrari eta EAEko Gobernuari eskatzeko euren aldarrikapenei "babes esplizitua eman diezaietela eta beharrezko erabakiak har ditzatela Gutxieneko Pentsioa 14 ordainsaritan 1080 euro garbi izatea errealitate bihurtzeko". 11:00etan abiatuko da manifestazioa udaletxeko plazatik. Bertara joateko autobusa antolatuko dute Debabarreneko pentsiodunek. Izena emateko Txaro Leteri esan edo astelehenetako elkarretaratzeetan jakinarazi.

Sinadura bilketa

Bestalde, maiatzaren amaierara arte segituko dute pentsioen igoera "benetako" KPIren arabera izan dadin eskatzeko sinadurak batzen. Kalean ipinitako mahaietan ez ezik, herriko saltokietan ere sina daiteke.

Jatearen plazerna, bertatik bertara



Batzoki

egunko menua
asotzaturtaz
karta eta menuak

opiatarrak eta
hamborgesa
entzuga bereziak

Basila eta
lupa arrak
bestiak

Erreserbak 943 75 20 10

ELIZPE HORTZ KLINIKA

Zure genak horiz idekia,
puntu puntako teknologekin lan
egiten dugu. Cal Cam sistema
bertzakia erabiltzen dugu.



Elizburu, 3 behea
SOEALIZPE
Tel: 943 75 25 67
e-mail: elizpe@lilymail.com

Ordutegia:
Asteleheneratik ostiralera
10:00 - 11:00 eta 16:00 - 20:00



IZXGURIRE
Igeltzeritza



Eraikin berriak • Kalitatezko emaitza
Erreforma • Era guztietako igeltzeritza

50 urteko esperientzia • 610 638 913 • 649 867 289

Hortz klinika

Erreserba 1
Tel.: 943 75 56 13

Arilau Alonso
Mediku Estomatologia
K.Z. 48 000 591

Katia Gurtio
Odontologia
K.Z. 48 001 541

27 urteko esperientzia
odontologia, protesiak,
odontopediatria, ortodontzia,
inglantzak, estetika...
Zerbitzu radiologiko onaketa (DRG)
ekanera, orto eta tele.



KLB6

Kalebarren 6
943 57 74 26
Makina eta mekanika
irratziak



BSB *Papa Jarama* **ISOLID** **AB**
VERO MODA **ESONICE** new balance

Kontulan

abokatuak

Errenta aitortzen • Administrazio lanak
Traffisko buroiaz • Lan-arloko aholkularitza
Enpresen kontuzio/ideozuzteak • Kontabilitateak

Santa Ana 13 - 1. era, 30190 Santorke
Tel. 943 75 17 82 / Fax 943 75 01 82

MENDIZABAL
okindegia

Ogia • Prentza • Gosariak



Asteleheneratik
ostiralera:
08:00 - 13:00
17:00 - 20:00

Larunbatak eta
Igandeak
08:30 - 13:15

Kalebarren 10
Tel.: 943 75 13 99



FOGASLER
ITURGINTZA

943 75 15 46 (Soraluze) - 943 71 82 49 (Oñati)
fogasleriturgintza@gmail.com



Txoko

Eguneko menua,
plater konbinatuak,
hamburgeruak,
ogitarlekak,
natiak,
pizak,
gosaia...
Entzuga onen dugu

Tel. 943 75 17 82

ARRANO
taberna

Itari eta gazta
etxeko pintxoak



Etxaburueta 6

Belarrak
lana eta
belardenda



Elikagai
ekologikoak
Etxerako zerbitzua
Santa Ana 22
943 75 30 11



MABEL
ILBAPAINDEGIA

Isantzetako keratina
tratamendua
Depilazioa
Re-sustrairik gabeko
permanentea
Makilajia
Manikura
erdinurkoma
Solariuma

Erreserba 1
Tel.: 943 75 14 89



KM design
Kira Muntatzen

943 75 99 85

kiramuntatzen@yahoo.es
www.kmdesign.es

Pol. Amalago 5
BERGARA

Disenatu eta Fabrikazio lanak

Sukaldeak
Horma-oinarriak
Logelak
Zoruak
Atalak...

Arotzeria lanak oro har
Instalazioak

Carpinteria
MANU
Aroztegia

Atak
Bentakak
Portakak
Sukaldeak
Tokiak

Manuel C. Fuentes
Estazioa 8. barrera - Mug. 636 05 81 25



ION MURGIZU BAKAIKOA
PINTOREA



arruntza
dekoratiboa
inguruetan

Tel. 943 75 13 24 - Mug. 652 77 70 30

HNOS. BENITO
ANAIK
MUEBLES-ALTZARIAK

Sukaldeak, logelak, egongelak,
neurriera egindako altzariak...

Santa Ana, 26 - Tel.: 943 75 20 47



BOLIT
TABERNA

Pisozko, ardoak,
kombinatuak
Gazte-girako festa



Irrintzia


TESTUA: EGOITZ UNAMUNO. ARGAZKIAK: KORRIKA.

“Herri honen eztairitik ateratako irrintzi bat. Hori da Korrika.” adierazi zuen Karmele Jaio idazleak 22. Korrikaren amaierako ekitaldian. Asier Amondo AEKko ordezkariak Korrika “mundiala, epikoa” izan dela eta “maila bat gora egin dugu”-la, edizio honetan lasterketak izan duen arrakasta azpimarratuz. Alizia Iribarren AEKren koordinatzaileak berriz, Administrazioei eskatu zien berma dezatela euskaraz doan ikasi ahal izatea.

Soraluzen, 24 taldetako ordezkariak eroan zuten lekukoa herrian zehar eta 3.600 euro batu ziren helduen alfabetatzea laguntzeko Euskal Herri osoan. Orain, hitzez ekiteko garaia da, hitzez eta ekintzaz, mundu zoro honetan geure nortasun propioarekin bizitzeko darabilgun ahalegin eder horretan. Ai ai ai ai ai...!







IRUDI ENGAINAGARRIAK

1etik 10era zenbatuta dauden zati hauetatik erdiak engainagarriak dira, hau da, ez daude irudi nagusitik hartuta. Bereiz itzazu onak eta engainagarriak.

ZENBAT?

Bide batez, zenbat saguzar ikusten dituzu irudi handian?

HAMAIKA IKUSTEKOAK

Aurki itzazu bi irudien artean dauden aldeak. Hamaika dira guztira.





Zein da zein? Hegazti guztiei 'txori' esatea ez da oso zehatza, ezta? Lotu txori bakoitzari dagokion izena.



Jarri marrazki bakoitzari dagokion hizkia eta zer dioten jakingo duzu.

Hizki-Marrazki



Handitik txikira

Ordenu itzazu txitak handitik txikira, hau da, handienari 1 zenbakia emanaz eta txikienerari 6.

Sudokua

Saia edo putrea hegazti sarraskijalea da, oso ezaguna. Bete itzazu hutsuneak PUTREA hitza osatzen duten hizkiez (P, U, T, R, E eta A). Gogoratu hizkiek behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.



GUTUNAK

Bide-orri bateratua baso politketan

ROKE AKIZU

ZINEGOTZIA

Azken 20 urteetan, Soraluzen, aitzindariak izan gara bertako arbolekin osatutako basoak sustatzen. Azken urteetan, gizartea ere, zientzialarien eta mundu akademikotik datozen ohartzarpen eta gomendioei iragazkorragoa dirudi. Horregatik, baso naturalen garrantzia aldaketa klimatikoa eta biodibertsitatearen galera saihesteko. Gure herrira bueltatuta, hiru egitasmu martxan daude bertako basoa sustatzea dutenak helburu: Soraluze Baso Bidez, non hitzarmenak sinatzen dira jabeekin kudeaketa jasangarri bat eraman ahal izateko udalaren partetik. Udalak berak erositako lursailetan eramaten

ari dena eta Lurgai Fundazioak ere hitzarmen bitartez edo lur publikoetan eramaten duena.

Nahiz eta hirurak helburu berdintsuak eduki, EHBildutik ekimen hauek estrategia adostu baten beharrea daudela pentsatzen dugu, diru publikoa era eraginkorrean kudeatzeko. Hau da, batzuetan irizpide bakarra bihurtzen delako mendigainean izatea (Non dago mendigaina eta gainontzekoa bereizten duen marra?) edota eskuragarri dauden terreneak. Gure ustez, lehentasun eta eremu desberdinen balorazio baten ondorioz, ezinbesteko irizpide moduan hurrengoak kontuan hartu beharrekoak:

- Bioaniztasun gehien duten eremuak
- Bertako baso eskasak lotzeko estrategia

- Ondare kulturala dagoen tokiak: txondor plazak, herri bide zaharrak, elurtegiak, etab.
- Errekak, mendigaineko eremuak Deba ibaiarekin lotzen dituztenak.
- Zuhaitz bereziak dauden tokiak, izan tamainarengatik edo ondare kultural, sinbologia...

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.000 (espazioak barne).

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena. Gutuna helarazteko bideak: aldizkaria@pilpilean.eus

KOMIKI TIRA



HAUSNARKETA

Kanpoan ala herrian erosten duzu?

Erosketa ohiturei buruz galdetu diegu herritarrei; non eta zergatik erosten duten herrian ala kanpoan.



MANUEL MORALES
'LITRI'

"Herrian eta kanpoan, bietan erosten dut. Eguneroko produktuak hemen erosten ditut, baina produktu zehatz batzuk kanpoan erosten ditut, hemen daudenak baino gustukoago ditudalako edo hemen ez daudelako".



MARIA VICTORIA
AIZPURU

"Herrian erosten dut. Adibidez, harategia eta arrandegia apurtxo bat garestiago irteten zait, baina herrikoak ditut gustuko. Kanpoan erosten dudanean, berriz, erosten dut produktu aukera handiagoa dagoelako eta merkeago ere badelako".



LUPE GOMEZ

"Gehiena herrian bertan erosten dut, egunerokoa hemen. Hori bai, umea zaintzea tokatu eta Eibarren baldin banabil edo semeari erosketak egin behar badizkiot, niretzat erosteko ere aprobetxatzen dut, baina eguneroko produktuak hemen erosten ditut".



MANUEL GARCIA

"Normalean kanpoan. Ohituragatik. Herriko merkataritzan ez dago aniztasun handiegirik. Bestalde, lehia handiegirik ere ez dago eta orduan, konturatzen zara inguruko herrietako prezioak hemengoak baino hobeak direla".

PUNTUA



GAIZKA AZKARATE

Apirileko tenporak

Denborak gidatzen du askotan gure bizi erritmoa. "Hamaiketan iritsiko naiz *etxera*" esan eta norbait egongo da zain atearen beste aldean. Norbait horrek orduak pasako ditu etxeko txirrinak noiz joko. Urduri jarri ohi gara ustez bete behar diren denborak betetzen ez direnean; aurreratu zein atzeratu. Badaude goiz joaten direnak, beranduegi joaten direnak, goizegi etorri, beranduegi etorri...baita inoiz joan behar ez zirenak ere.

Emandako hitza ez betetzeak huts egite sentsazioa uzten du norbere barruan eta itzalpe luze bat sortu dezake. Denborak, erritmoak, ohiturak, iragarpenak... guztiak gizakion bizitzaren taupada.

Eguraldiaren berri ematen duten adituak udako tenporetan oinarritzen dira hurrengo hilabeteetan egingo duen eguraldia asmatzen ahalegintzeko. Jatorriz, tenpora latinezko *Tempora* hitzetik dator, *tempus* hitzaren plurala denbora edo aroa esan nahi duena.

Behar baino beranduago, uste baino lehenago, baina unerik aproposenean. Gurean, apirileko tenporek aro berri baten hasiera iragarri dute eta hauek izango dira aurrerantzean erritmoak, denborak eta taupadak hauspotuko dituenak.





Eoliken proiektuarekiko kezka

Karakaten parke eolikoa ezartzeko proiektuaren prozedura legalak aurrera jarraitzen duen bitartean, proiektua geratzeko eskatzen duten ekimen instituzional eta sozialak ugaritzen doaz Soraluzen eta Elgoibarren. Ondorengo erreportajearen, Pil-pileanek orain arte bildu dituen informazioak jaso ditu. Aurreproiektuaren ezaugarriak eta datozen asteetako ekimenak, besteak beste.

Testua: **Ubane Madera eta Egoitz Unamuno**. Argazkiak: **Karakate Bizirik**.



Bi hilabete eta erdi pasatu dira Green Capital enpresak (Capital Energy konpainia) Karakaten zentral eolikoa ipintzeko egitasmoa aurkeztu zuenetik Sorluzeko Udalean. Otsailaren 14an izan zen hori. Orduz geroztik, Florentino Perezen suhiaren konpainiak proiektua gauzatzeko baimen eskaera bideratu du eta lehiakideak aurkeztu ahal izateko prozedura legalak ezartzen duen epea ere igaro da. Oraingoz, buletinean ez dute jakinarazi proiektura beste enpresarik aurkeztu denik. Pil-pileanek prozeduraren egoeraren inguruan galdetu du Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolaketarako Gipuzkoako ordezkarietan, baina han ez dute horren inguruko xehetasunik eman.

Beste enpresarik aurkeztu ez balitz, orain, Green Capitalek sei hilabete izango lituzke mendigainean eraiki nahi duen zentralaren gaineko exekuzio proiektua aurkezteko. Proiektuarekin batera, enpresak zentral eolikoa eraikitzeak ingurumenen eragingo lukeen inpaktuaren gaineko txostena ere aurkeztu beharko luke eta ondoren, proiektua publiko egin ostean, Udalak edo beste edozein entitate edo norbanakok proiektuari alegazioak aurkeztu ahal izateko epea zabalduko litzateke. Udalak, bere aldetik, dagoeneko jakinarazi du proiektuari alegazioak aurkezteko asmoa duela. Azkenik, alegazioak aurkeztu ostean, enpresak epe bat izango du balizko alegazioei erantzuteko. Alegazioak eta erantzunak aztertu eta gero, Jaurlaritzak behin betiko erabakia edo ebazpena hartuko luke.

Karakate eta Akilar tontorrak eta Otsoaldasoroko tumulua. Aranzadiko kideak eta boluntarioak tumulua industen ageri dira.

Kronograma

- 02-14 zentral eolikoa eraikitzeko asmoa aurkeztu Udalean
- 03-02. Baimen eskaera GAOn. 20 egun beste enpresaren bat aurkezteko.
- 6 hilabete exekuzio proiektua eta ingurumen inpaktua aurkezteko
- Alegazio epea

Aurrekontua

Kontzeptua	Kopurua (eurotan)
Aerosorgailuak	5.947.500
Obra zibila	1.089.737,14
Ekipoak eta instalazio elektrikoak	262.326
Bestelakoak	921.285,62
Guztira	10.762.915,73

ITURRIA: GREEN CAPITAL

Aurreproiektuaren ezaugarriak


Green Capitalen aurreproiektuaren arabera, bi aerosorgailu eoliko ezarriko lituzkete Karakatek Gizaburuagara bitartean, Akilarren bata eta Pagomuneta eta Gizaburuaga bitartean bestea, kilometro karratu erdiko eremuan (50 hektarea).

Dorre bakoitza 101 metro altu izango litzateke eta barruan, eskailerak, igogailua eta plataformak izango lituzke. Hegal bakoitza, berriz, 77 metro luze izango litzateke. Beraz, hegal eta guzti, aerosorgailu bakoitzak 180 metro inguruko garaiera izango luke. Konparazio batera, dorreak Soraluzeko elizdorrearen garaieraren halako lau neurtuko luke eta Bilboko Iberdrola dorreak beste (165 metro ditu hark).

Dorreen oinarriek, berriz, 26 metroko diametroa izango lukete (konparazio bat egite aldera, Zubi Nagusiak duenaren bestekoa) eta hiru metroko sakonera, lurpean. Potentziari dagokionez, aerosorgailu bakoitzak, bataz beste 4.800 kw-eko potentzia sortuko luke.

Aurreproiektuan zehazten dutenez, zentralak sortzen duen energia Elgoibarko azpiestazio elektrikora eroango lukete, Azkueko zentralera (jabea Iberdrola da), handik sare orokorrera konektatzeko. Energia, lurpean sartutako kableen bitartez bideratuko lukete Elgoibarko azpiestaziora, 4,79 kilometroko ibilbidean zehar. Proiektuak, guztira, 10.762.915 euroko aurrekontua izango luke. (Ikus aurrekontuaren xehetasunak aldameneko taulan).

Datuak eta konparaketa



Materiala jasotzeko errepedeak

Dorreak elkarren artean komunikatzeko eta zentral eolikora ailegatu ahal izateko mendigainean egokitu beharreko bidez gain, zentrala eraikitzeko pieza erraldoiak eta materialak mendigaineraino jaso ahal izateko bidea ere eraiki beharko lukete. Green Capital Power enpresaren aurreproiektuak, ordea, ez du zehazten hori nondik eta nola egingo lukeen.

Aurreproiektuak zehazten duena da errepedeek zein baldintza bete beharko lituzketen: errepedeak, gutxienez, 4,5 metro zabal izan beharko lituzke; errepedearen gehienezko penditzak ezingo luke izan %15ekoa baino handiagoa eta errebueltek, gutxienez, 60 metroko radioa izan behar lukete. Aurreproiektuak dioenaren arabera, "ahal den neurrian" dagoeneko eraikita dauden "zoruak, suebakiak" eta abarrak erabiliko lituzkete. Baina horrekin batera, aipatzen du "instalazioak" egokitu beharko direla: "lehendik dauden bideak, egokitu beharreko bideak, eraikuntza berriko bideak eta erosorgailuen zimentazioa".

Zentrala eraikitzeko epeei dagokienez, berriz, aurreproiektuan jasotzen denez, eraikuntza lanak "obra berplanteatu" eta bost hilabeteren buruan amaituko lituzkete.

Kontrako iritziak eta mozioa

Karakaten zentral eolikoa eraikitzeko asmoak hasieratik eragin du kezka herritarren artean, baita Soraluzeke Udalean eta herriko hainbat elkartetan ere.

**DORRE BAKOITZAREN
TAMAINA IZANGO
LITZATEKE
ELIZDORREAREN
HALAKO LAU**

**AURREPROIEKTUAK EZ
DU ZEHAZTEN
MATERIALAK NONDIK
ETA NOLA IGOKO
LITUZKETEN**



Dorrearen kokalekua, koordenada bitartez ezarrita.

- Neurriak: Dorreak 101 m luze eta palak, 77 m luze. Errotorea: 158 m-ko diametroa.
- Obra zibila:
 - Bideak: gutxienerako zabalera 4,5 m (dauden bideak zabaldua edo berriak eginda); kurben erradioa, gutxienez 60 m-koa.
 - Kableak eramateko zangak: 1,2 m sakon, 1m zabal.
- Lurpetik, 4,79 km-tan zehar, Elgoibarko azpiestazioraino.
- Montajerako plataformak.
- Kokapena: Soraluze eta Elgoibar. Akilarren dorre bat, eta Pagomuneta eta Gizaburuagaren artean bestea. Kableak Elgoibar aldera.
- Potentzia: 9,6 MW.



Aerosorgailuak mendigainean.



Udal ordezkariak eta herritarrak martxoaren 18an Plaza Berrian egin zen elkarretaratzean.

Baso Biziak Elkarteak izan zen proiektuaren aurka bere iritzia publiko egin zuen lehen eragilea eta ostean iritsi zen Soralezko Udalaren mozioa, proiektuaren kontra zegoela jakinaraziz. Martxoaren 18an osoko bilkuran, udalbatzak aho batez onartu zuen *Mendigainean eolikorik ez!* izeneko mozioa, EH Bilduko, EAJko eta PSE-EEko udal ordezkarien babesarekin. Mozioan, Udalak adierazi zuen energia berriztagarrien alde dagoela eta gaineratu zuen "jakitun" dela halakoak jartzeko "ingurumen kalteak ekiditea saihestezina" izango dela.

Halabaina, "larrialdi klimatikoaren aurrean eman beharreko pausoak planifikatzeko orduan", gizartearen eta instituzioen arteko elkarlana eskatu zuen. Horrez gain, "konpromiso sendoa" agertu zuen "Muskiritzuko mendilerroak dituen kultur, natur, aisialdi, ondare geologiko eta biologikoak balorean jartzen eta horretarako Dolmenen Ibilbidea bezala ezagutzen den proiektua sustatzen eta bultzatzen jarraitzeko" eta alegazio-epean proiektuari alegazioak aurkezteko asmoa iragarri zuen. Gainera, Udalak mozio horretan bertan egindako deialdiari erantzunez, martxoaren 18an dozenaka herritar batu ziren Plaza Berrian, *Mendigainean eolikorik ez!* zioen pankartaren atzean.

Soraluzekoak ez bezala, Elgoibarko Udalak oraingoz ez du proiektuarekiko iritzirik eman. Pil-pileanek galdetuta, Elgoibarko Udalak adierazi du bertan oraindik inork ez duela ezer aurkeztu, eta, ondorioz, ofizialki ez duela ezer esateko. Hala ere, jakinarazi du proiektuak herrian sortu duen kezka dela eta, gaia arretaz jarraitzen diharduela eta gaineratu du Dolmenen Ibilbidea babestea Udalaren lehentasunen artean dagoen moduan, energia berriztagarrien alorrean pausoak ematea ere badagoela.

Herritarren plataformak

Proiektuak herritar askoren artean eragin duen kezka eta kontrakotasunari erantzunez, Soraluzen eta Elgoibarren herritarrek Karakate Bizirik plataformak sortu dituzte bi herriotan, "Karakateko ingurua babestu eta proiektua geraraztea" helburu dutenak.

Hala, bi plataformek lehentasun modura ezarri dute Karakateko proiektuaren inguruko informazioa zabaltzeko eta honek sor ditzakeen kalteen berri ematea. Ildo horiek landuz, maiatzean antolatuko dituzte lehen ekintza publikoak. Batetik, maiatzaren 4an Elgoibarren eta maiatzaren 11n Soraluzen energia berriztagarrien gaiaren gaineko hitzaldiak eskainiko dituzte. *Zein dira horrelako zentral eolikoek sortzen dituzten arazoak? Badago ordezeko alternatibarik?* izenburupean, GoieEner kooperatibako Oier Etxebarria eta Lorea Astigarraga kideek eta Arabako Mendiak Aske mugimenduko Iñigo Lezeak gaiari buruzko informazioa emango

dute. Bestalde, maiatzaren 8an bi plataformek mendi martxa egingo dute Karakatera eta han, eguerdiko 12:30ean, zentral eolikoaren inguruko informazioa jasotzen duten hiru taula instalatuko dituzte.

Karakate Bizirik plataformaren arabera, instalazio eolikoek hainbat kalte eragingo lituzkete inguruan; “naturgunearen industrializazioa (tamaina handiko makinariarengatik eta bide eta instalazio erraldoiengatik), biodibertsitatearen galera (hegalak jota hegazti planeatzaileak eta saguzaharrak hiltzen dira), aerosorgailuetan erabiltzen diren olioien isurketek sare hidrolotikoa kaltetzeko eta suteak sortzeko arriskua handitzen dute, ondare arkeologikoa eta geologikoa dagoen gune bat suntsituko da eta inpaktu paisajistikoa eta akustikoa izugarria eragingo du”.



Gortazarko tumuluan Aranzadiko Jesus Tapia eta apirilean zehar indusketetan parte hartu duten hainbat herritar.

Eremuaren balioa vs babes

Capital Energyk aerosorgailuak eraikitzeke aukeratu duen eremuak, Karakatek Gizaburuagako tumulora bitarteko lursailak (kilometro bat pasatxo), aitortua du bere balio geologikoa (LIG-41) eta naturalistikoa, eta bi arlo horietan interes bereziko gune izendatua dago, baina aldi berean salbuetsita dago praktikan lursail horri babes maila handiena ziurtatzen dion Plazentzia-Elosua Estazio Megalitikoaren izendapenetik. Horregatik, gaur-gaurkoz, Jaurlaritzak eremu hori dorre eolikoak eraikitzeke gune potentzial moduan izendatzen du 1997tik indarrean den Lurralde Plangintza Sektorialean (2019an, Legebiltzarrak eguneratzeko eskatu zion Jaurlaritzari).

Tumuluak eta Erromatarren aztarnak

Martxoan Aranzadik historiaurreko bi hilobi topatu ditu Karakateko tontorretik gertu, hain justu, maila handieneko babesik gabe dagoen eremun: ‘Gortazar’ eta ‘Otsoaldasoro’ izeneko tumuluak. Ildo horretan, Aranzadik aurkitutako momentuen gaineko inbentario zehatza osatzen dihardu eta ofizialki erregistratuko ditu gaur arte Plazentzia-Elosua estazio megalitikoan aurkitu diren 19 monumentuekin batera. Soraluzeko Udalak bere aldetik prozedura abiatu du bi monumentu horiek eta Erromatarren kanpamenduaren eremua babestutako ondare gisa izendatzeko herriko ondareen katalogoan. 1998an, Kultura Sailak emandako izendapen hori izan zen mendilerroan zehar 20 dorre eraiki asmo zituen proiektua gerarazteko arrazoi ofiziala. Ikusteko dago, orain, aurkikuntza berri hauen ondorioz, Eusko Jaurlaritzak estazio megalitikoaren eremua Karakateraino hedatu eta inguru osoa babestuko duen.

**"INSTALAZIOAK
INPAKTU PAISAJISTIKO
ETA AKUSTIKO
IZUGARRIA ERAGINGO
LUKE"**

**IKUSTEKO DAGO
JAURLARITZAK BABES
EREMUA
KARAKATERAINO
HEDATUKO DUEN**



Marras Iristaketa Taldeko benjaminak.

Hockey topaketa kiroldegian

Maiatzaren 8an, Soraluze benjamin mailako hockey taldeen egoitza ofiziala izango da. 80 bat lagun elkartuko dira.

Maiatzaren 8an, Marras Iristaketa Taldearen eskutik, Soraluze umeen hockeyaren topagune bihurtuko da, izan ere, bertan jokatu da benjamin mailako hockey jardunaldia. Zortzi talde

lehiatuko dira bertan, Bilbotik, Gasteiztik, Aguraindik, Zornotzatik eta bestelako toki batzuetatik etorritakoak. 09:00etan hasi eta 15:00ak arte, orduro partida bat jokatu dute Araneko frontoian. Marras

taldeari dagokionez, 09:00etan eta 14:00etan dituzte partidak. 80 bat jokalaria eta haien gurasoak elkartuko dira.

Ikusgarritasuna ematea

"Hockeyko benjaminen egoitza Soraluze izatearen helburuetako bat da herriari erakustea ze martxa dagoen Soraluzen hockeyarekin lotuta. Marraseko txikienak arituko dira lehian, goragoko mailakoen topaketarik, berriz, ezin dugu egin, pistak ez dituelako beharrezko baldintzak betetzen. Marrasek jada 40 jokalaria ditu eta datorren urtean bost mailatan aritzea nahi dugu: eskolarteko benjaminak, alebinak, infantilak, jubenilak eta emakumezkoak. 2019an klub bezala eratu eta urtez urte handitzen joan da egitasmoa. Pozik gaude parte-hartzearekin eta horrenbeste ematen digun kirola herrira gerturatzea eta ezagutzera eman nahi dugu topaketekin. Egitasmoa handitzen doan heinean, ekonomikoki ere beharrak handitzen doaz, eta maiatzeko asteburu horretan aukera izango da errifa bidez Marraseko egitasmoa laguntzeko".

15 bikote lehian Asier eta Iñakiren omenezko pilota txapelketan

Apirilaren 25etik abian da Asier eta Iñakiren omenezko XXI. pilota txapelketa. 15 bikote lehiatuko dira eta finala uztailearen 16an jokatu dute, San Andresko Munua frontoian. Finala arratsaldean jokatu da, baina aurretik elkarrekin bazkalduko dute guztiek. Bi sari izango dira lehiaketan, biak ala biak Julen

Mendikutek egurrekin egindako tailak.

Mr Sor2-ren murala

Bestalde, antolatzaileen ideia da finalaren egunerako San Andresko frontoiaren frontisaren atzeko paretara osoa hartuko duen mural bat egitea, Jokin Oregi *Mr Sor2* artista soraluzetarraren eskutik.



Pilotariak lehian, iazko txapelketan.



Domentx Uzin (biolina), Jon Basauri (gitarra eta ahotsa) eta Nagore Sanz (kontrabaxua).

Brassensen kantak antzokian

Maiatzaren 1ean, George Brassens kantariaren kantuak interpretatuko dituzte antzokian, jaio zeneko mendeurrenean.

George Brassens (1921-1981) abeslari eta musikagile frantsesaren kantuak interpretatuko dituzte domekan Jon Basaurik, Domentx Uzinek eta Nagore Sanzek, antzokian, 19:00etan hasita.

Ehun urte bete dira Brassens jaio zela eta mendeurrena aitzaki hartuta, Jon Basaurik bere zazpi abesti euskaratu eta moldatu ditu. Horiek eta beste hiru kanta interpretatuko dituzte domekan, Rendez-vous

avec Brassens izeneko emanaldian: Xabier Letek egindako bi moldaketa euskaraz eta *El Testamento*, gaztelaniaz, egileak berak grabatu zuen letra berarekin. “Bizitza, heriotza, bikote harremanak, maitasuna, gizabanakoaren askatasuna, chauvinismoa... dira gehien errepikatzen diren gaiak, Brassensen aparteko umorearekin zipriztinduta”.

Puntako artista

Basauriren esanetan, "musika eta literatura uztartzen punta-puntako artista izan zen. Esango nuke bere kantuak munduko hizkuntza guztietara itzuli direla, Biblia bezala. Fenomeno bat izan zen 50-60. hamarkadetan. Euskaraz ere egin dira itzulpen eta moldaketa bikainak, Xabier Leteren eta Anje Duhalderen eskutik behintzat bai. Nik nire amateur mailako lan kurioso bat egiteko gogoia neukan, zerbait ulergarria eta gustagarria. Uste dut hur emango diogula, batez ere, Domentxen eta Nagoreren laguntzari esker”.

Euskarazko liburu gomendatuak 'Irakurri eta gozatu' kanpainan

Apirilaren 23an hasi eta ekainaren 3ra bitartean, 'Irakurri eta gozatu' kanpainaren barruan, euskarazko liburu sorta gomendatu (zerrenda kontsultagai dago liburutegian eta Plaentxia.eus-en) eta irakurtzera animatuko dituzte herritarrak. Gomendatutako liburuak eskuragai izango dira

liburutegian eta gainera, nahi izanez gero, aukera izango da liburudendan %50eko beharapenarekin erosteko ere.

Azken urteotan egiten den bezala, kanpainak irauten duen bitartean, euskarazko liburu mordoxka izango da zintzilik liburutegirako sarreran: eleberriak, saiakerak, komikiak, ipuinak... Askotariko lanak.

Irukurutzeta Eguna 8an

Maiatzaren 8an, domekan, Irukurutzeta Eguneko ospakizunak egingo dituzte mendi tontorrean. Pandemia dela eta bi urtean ospatu barik egon eta gero, aurten salda eta txorixoa banatuko dute berriz, 11:15etik aurrera. Euria bada, jan-edanak AtxedenTxaboletan banatuko dituzte.

Kultur agenda



ARGAZKIAK Kontrargi Rallyko argazkiak

Herritarren argazkiak, Kontrargiren Rallykoak.

Maiatzaren 2tik 14ra, Kiroldegiko erakusketa gelan.



FILMA Maixabel

Maixabel Lasaren bizitza oinarri duen gaztelarazko filma. Iciar Bollain zinema zuzendariarena.

Maiatzaren 5ean eta 8an, antzokian, 19:30ean.

ESKULTURA ETA PINTURA Begiradak-Miradas

Aitor Etxeberria (eskultura) eta Aitor Sarasketa (pintura).

Maiatzaren 6tik 27ra, Oreak Art galeria.



MUSIKA Iñaki Salvador & Loyola Garmendia

Pianojoleak eta Golden Apple Quartet taldeko kantariak umorez betetako saioa eskainiko dute, jazz estiloko kanta ezagunak interpretatuta.

Maiatzaren 14an, zapatuan, antzokian, 20:00etan.

PINTURA Pintura ikasleen margolanak

Pintura eskolako ikasleek egindako margolanak izango dira ikusgai.

Maiatzaren 16tik 28ra, Kiroldegiko erakusketa gelan.



DOKUMENTALA Bi urte, lau hilabete eta egun bat

Intsumisioaren gaineko

dokumentala. Derrigorrezko soldaduskaren aurka borrokatu zuten 6 lagunen istorioa kontatzen da bertan. Lander Garrok zuzendua.


Maiatzaren 19an, eguenean, antzokian, 19:30ean.



MUSIKA Bergarako Musika Banda

Begarako Musika Bandaren kalejira eta kontzertua.

Maiatzaren 22an, domekan, 12:00etan kalejira kaleetan zehar eta kontzertua, Plaza Zaharrean, 13:00etan.



PINTURA Kaleko pintura lehiaketa

XXVII. Kaleko pintura lehiaketa. *Maiatzaren 29an.*

Elurra udaberrian

TESTUA ETA ARGAZKIA FERNANDO ALBERDI

Aurten, eguraldiak ezustekoa eman du. Neguan barik, udaberrian, apirilean zehazki, elurra egin baitu. Gertakaria ezustekoa izan arren, ez da halakorik gertatzen den lehen aldia, ezta gutxiago ere. Ondoko argazkia da horren irudi. Hori ere udaberri batean dago aterata, San Andres auzo inguruan, 80ko hamarkada hasieran.

Goikoak

Honako hauek dira argazkian azaltzen direnak. Goian, ezkerretik eskumara: Fermin Ruiz (txapela duena), Pedro Mari Muguruza, Migel Zubizarreta, Florencio Gonzalez, Angel Alberdi, Celestino Txurruka, Pedro Gallastegi eta Angel Elizburu.



Behekoak

Behean, berriz, ezkerretik eskumara honako hauek azaltzen dira: Juane Garaikoetxea, Justino Gabilondo, Sebastian Etxaniz (goian erdi makurtuta

dagoena), Amancio Torrientes (behean txapelari eusten dagoena), *Aramaixo* (gorriduna), Luis Agirre, Sebastian Vargas (txaketa zuriduna), Epi Arriaga, Migel Maiztegi eta Bernabe Bollain.

**OGASUNAREKIN
EUSKARAZ
EGIN DEZAKEZU**

1. ERRENTA KANPAINAN
2. ORO EREDUA (BULEGOAK)
3. GIPUZKOATARIAN

2023an 100.000 herritar
Ogasunarekin euskaraz

NOLA ALIKERATU
HIZKUNTZA?

2023an 100.000 herritar
Ogasunarekin euskaraz

'Paisaiak' Errazuren eskutik

OREKA ART GALERIAN ERAKUSKETA IPINI BERRI DU ARTISTA SORALUZETARRAK

TESTUA UBANE MADERA ZANGITU

ARGAZKIAK: ARATZ DEL BARRIO

Jon Errazu artistak (Soraluze, 1982) bere laugarren serieko margolanak izan ditu ikusgai Gabolatseko arte galerian. Formatu ertaineko zazpi koadro eta Soraluzeko galeriarako propio egindako formatu txikiko beste bederatziz izan ditu ikusgai, *Paisaiak* izenburupean. "Serieka egiten dut lan. Oraingoz, *Paisaiak*-en 18 koadro daramatzat eta normalean 30-40 inguru egiten ditut serie bakoitzeko. Beraz,

Paisaiak-ekin segituko dut lanean. Soraluzen ipini ditudan tamaina ertaineko koadroak dira egin ohi ditudan txikienak, baina formatu txikikoak ere oso gustuko ditut. Serie honetan lientzoak eta paper txikiak konbinatu ditut. Badut buruan ideia bat egur gainean egiteko, baina momentuz ideia besterik ez da", esplikatu du.

Soraluze-Txina

Errazuk tinta txinatarrez margotu ditu koadroak,

Soraluzen goizetan sarri izaten den behe-lainoa eta Wang Wei eta Pei Di poeta txinatarren *Wang ibaiko poemak* poemarioa inspirazio iturri hartuta. "Soraluze-Txina, hor harreman kuriosoa dago. Koadroak tinta txinatarrez margotuta daude, batzuetan spray akrilikoak ere erabili dit, baina gehiena da tinta txinatarra mihisean edo paperean. *Black Mountains* seriean azaltzen den behe-lainoaren eta poemario horren arteko nahasketa".



Jon Errazu Oreak Art galerian ipinitako margolanetako baten aurrean. ARATZ DEL BARRIO

Batak darama bestera

Lanak berak markatzen dio bide-orria artistari: "Aktibitate plastikoak eramaten nau serie batetik bestera. Abstrakzio purutik hasi nintzen (2014-2015); gero *Stones*-etara pasatu nintzen, arroka batzuk ziren horiek (2016-2018); handik *Black Mountains*-era (2018-2020). Azken serie hori dagoeneko bazegoen Soraluzekeo ambiente atmosferikoan inspiratuta, goizeko behe-laino horretan. Behe-laino hori mantendu egiten da *Paisaiak* seriean, baina azken horrek irakurri nuen poemario txinatarraren influentzia du. Orain, ikusi egin behar *Paisaiak*-etik zein ideia garatzen den edo zelan garatzen den bidea. Interesa galtzen dudan momentuan beste gauza batera pasako naiz edo pintatzen nabilen neurrian beste ideia bat sortuko da... aktibitate plastikoak berak eramaten zaitu beste une, teknika edo ideia batera".

Emitza emankorra

Honezkero, Jon Errazuri emankorra ari zaio izaten *Paisaiak*. Dagoeneko hiru tokitan erakutsi ditu horko margolanak, Amsterdamen, Bartzelonan eta Soraluzean, eta artista pozik dago "nahiko harrera ona" izan baitute, apaltasunez esanda. Galeristen aldetik ere, harrera ona izaten ari da, azken urteotan bezala. "Bartzelonan tailer txikitxo bat daukat eta ezin dut ezer biltegiatu. Pintatzen noan heinean galeriara eramaten dut. Eurei gustatu egiten zaie eta hartu egiten didate, gorde eta saldu. Bartzelonan bi galeriarekin egiten dut lan, "Villa del Arte Galleries" (Amsterdam-Bartzelona) eta "La Plataforma"-n eta collectivetan ere parte hartzen dut".

www.jonerrazu.com

www.instagram.com/jonerrazu

Sariak

- 2022 Torres García-Ciutat de Mataró 9. Pintura Sarian aurre-hautatua.
- 2019 34 BMW Pintura Sarian aukeratua, Madril.
- 2019. 16 Premi BBVA de Pintura Ricard Camí sarian aurre-hautatua
- 2017 Finalista II Pintura Lehiaketa Fundación Privada Mutua Catalana, Tarragona. Aure-aukeratua 15 Premi BBVA de Pintura Ricard Camí
- Finalista 25 Premi Telax, Antoni Pinyol galeria.
- Finalista 7. Torres García-Ciutat de Mataró Pintura Sariketan
- 2016 Finalista 24 Premi Telax, Antoni Pinyol galeria.
- 2015 Accesita X. Paco Merino Pintura Saria.



'Paisaiak' serieko margolan bat.



'Paisaiak' serieko margolan bat.



'Paisaiak' serieko margolan bat.

"Errugbiak lagunak, poza eta heldutasuna ematen dizkit"

ALEU CID PEREZ ERRUGBI JOKALARIA

TESTUA UBANE MADERA ZANGITU
ARGAZKIAK: UBANE MADERA ETA EIBAR
RUGBY TALDEA

Aleu Cid Perez soralezaterra (2001, Maracay, Venezuela) 2015ean hasi zen errugbian, Eibarren ikasten ari zela. Kirol hura probatzea eskaini zioten Eibar Avia Rugby Taldean. Zazpi urte geroago, Estatuko errugbilari onenen kontra lehiatzen ari da, Ohorezko Mailako ligan. Aurten, gainera, Espainiako selekzioarekin debutatu du Europan. Proiekzio handiko kirolaria da, duda barik.

Ohorezko Mailan lehiatu zarete aurten bigarren urtez eta bosgarren geratu zarete. Zelan baloratzen duzu?

Playoff-etatik kanpo geratu gara. Horrekin dugu disgustua. Baina azken minutura arte dena borrokatu dugu, beti ematen dugu dena, oso talde agresiboa dugu. Hori bai, pertsonalki oso zaila izan da, batik bat, mentalki. Nahiko zaila da halako maila batean jokatzeko gazte izanda, presio handia dago. Ez dut beti lortzen nigan sinestea edo

gauzak egiteko gauza naizela pentsatzea, ezta gauzak gestionatzea ere. Gainera, beste ekipoetako gehienak nagusiagoak dira. Eibarren, onerako edo txarrerako, ekipo gaztea gara.

Selekzioan ere jokatu duzu, zer eta Europan.

Iaz ez nintzen selekzioarekin askotan ibili eta aurtengo deia ez nuen espero. Astelehen baten 20:30ean deitu zidaten galdetzen ea hurrengo goizean joan nintekeen Madrilerako AVE bat hartuta. Kaosa izan zen. Joateko laguntza mordera eskatu nuen han eta hemen, ez zen erraza izan, baina joan nintzen. Debuta egin nuen eta demaseko esperientzia polita izan zen. Lehenago ere entrenatu eta jokatu izan dut selekzioarekin, baina ez Europeoan, ezta selekzio absolutuarekin ere.

Eta orain, Erreginaren Kopa.

Bai. Hiru asteburu dira. Lehena oraingo honetan da, maiatzaren 1ean, A Coruñan. Talde askoren aurka jokatu dugu, Ohorezko Mailan jokatzeko dugunak kontra. Hurrengo maiatzaren

7an da eta azkena, maiatzaren 21ean, Eibarren izango da, zortea izan dugu. Erreginaren Kopa lehiaketa gogorra da. Orain dela bi urte sailkatu ginen, challenge irabazi genuelako.

Zein posiziotan jokatzeko duzu?

Aurtengo beste aldaketa handi bat da hori. Beti jokatu izan dut 3. lerroan, baina aurten 1. lerroan jokatzeko dut. Ikasten nabil gutxinaka-gutxinaka. Espainiako Selektzioak nire entrenatzaileari deitu zion esanez lehen lerroak behar zituela eta horregatik formatu ninduten lehen lerro moduan.

Hori guztia egin arren, baina, errugbia ez duzu lanbide, ezta?

Errugbia da bizitzan egin nahi dudana. Hortaz, zaletasuna baino gehiago da. Neure buruari asko exijitzen diot eta kanpoko presioa sentitzen dut. **Baina hemen ailegatu zintezke profesional izatera?**

Espainian zaila da, nahiz eta selekzioarekin kontratua edo dena delakoa izan. Kirol honetan profesional izateko aukera bakarra kanpora joatea da eta hor zure ametsak



Aleu Cid Zubi Nagusian.

lortzea. Niri gustatuko litzaidake.

Zein da zure ametsa?

Gustatuko litzaidake ikasketak bukatu arte Eibarrek in jokatzen segitzea. Datorren urtean bukatuko dut goi mailako zikloa eta gero unibertsitatea online egiteko asmoa daukat. Kanpoan jokatzeke lehen aukera Frantzia litzateke eta amets handi-handia, berriz, Zeelanda Berrira jokatzerara joatea. Han maila oso altua dago. Han bizi daiteke errugbitik, ez futbolariet moduan, baina bizitzeko beste bai.

Zenbat denbora eskaintzen diozu errugbiari?

Astelehenetik ostiralera entrenatzen dut, gimnasioa 3-4 egun eta entrenamendua 3 egun. Gehienetan, hilabete batean bi partida ditugu, aste bat libre, gero partida bat... Normalean, irailetik martxora

"ERRUGBIAK LAGUNAK, POZA ETA HELDUTASUNA EMATEN DIT"

izaten da denboraldia, baina gorabeherekin. Horrez gain, entrenatzailea naiz. 14 urtez azpiko umeak entrenatzen ditut astean bi egunez eta beti nago prest umei laguntzeko. Ane Couto eta Aitor Martin soraluzetarrak entrenatzen ditut, adibidez.

Zer ematen dizu errugbiak?

Lagunak. Nire taldea familia baten modukoa da. Bestalde, poztu egiten nau errugbian jokatzeak. Oso kompetitiboa naiz eta ematen dit adrenalina partida bakoitzean zelaira irteteak dena ematera.

Heldutasuna ere bai. Asko ikasi dut. Ikasi dut zelaian pixkanaka-pixkanaka nire frustrazioak eta nire antsietateak kontrolatzen joaten eta hor ateratzen dut nire amorrut dena. Beti.

Besterik gaineratu nahi duzu?

Gustatuko litzaidake gazteak, eta gehienbat neskak, gonbidatzea errugbian jokatzerara. Errugbiari buruz dauden mitoak apurtzeko. Ez da bakarrik kolpeak dituen kirola; gauza asko ditu, balore garrantzitsuak. Hemen gaude.



Aleu Cid errugbian. ASMA



Aleu Cid baloiairekin. ASMA



Aleu Cid jokoan. ASMA

ZORION AGURRAK



Bittor Murguzur
Apirilaren 30ean, 35 urte. Zorionak!
Etxeok eta lagunak.



Enaitz
Apirilaren 27an, 6 urte. Zorionak, muxu asko etxeokoen partez.



Ibai Larrañaga Lizarralde
Martxoaren 31an, 6 urte. Zorionak Ibai!!!
Patxo handi bat etxeok guztien partez!!!



Inar Arroyo Madera
Maiatzaren 24an, 11 urte. Zorionak Inar!
Ederki pasatu!
Etxeok eta lagunak.



Joanes Borinaga Lekue
Apirilaren 12an, urte 1. Zorionak maittia!
Muxu haundi guraso eta amamen partez zure lehenego urtebetetzean.



Leire Laskurain Lopez
Apirilaren 22an, 3 urte. Zorionak eta ondo ondo pasa etxeokoen partez!



Oier Vaquero Aguirre
Apirilaren 15ean, 10 urte. Zorionak txapeldun! 10 urte zoragarri izan dira, poztasunez beteak. Segi horrela. Ondo pasa eguna etxeokuen partez.



Markel Cerrejon eta Urko Unamuno
Apirilaren 26an, 10 urte. Zorionak bikote. Segi beti bezain jator. Askok maitxe zaitxuegu.



Rosi Gomez
Apirilaren 15ean, 62 urte. Zorionak amama! Jarraitxu irrifarre politx horrekin! Askok maitxe zaitxugu! Muxu handi bat familia guztien partez.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; bi bide dituzu:

Internet

Plaentxia.eus-en erabiltzailea sortu eta <http://plaentxia.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta hilabeteko azken ostiralean aldizkarian.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurrak@pilpilean.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

JAIOBERRIAK



Telmo Duran Lamariano
Apirilaren 10ean jaio zen.

HILDAKOAK ETA JAIOTAKOAK

Hildakoak

Gonzalo Akizu Ormazabal
Maria Ezozia Onandia Lamariano

Jaiotakoak

Maddi Ane Laskurain Azkarate
Telmo Duran Lamariano

ESKELAK

ESKELA

Prili Alvarez Alvarez

2022ko martxoaren 23an hil zen, 92 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi eta hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.

Sendia.



ESKELA

Gonzalo Akizu Ormazabal

2022ko apirilaren 23an hil zen, 83 urte zituela.

Eskerrik asko aitita, aitxa eman dozkuzun guztiagatik. Gerraosteko umea, gosea zer den jakitun. Circo Estrellaren sortzaileetako bat. Ibaia polikiroldegi eta kale. Biharra eta apaltasuna. Txistulari. Herriantzako be zure ekarpena egin zenduan garai zailetan. Ama, amamakin parre batian egongo zara eta.

Etxekoak.





ESKELAK JARTZEKO: 943 75 13 04
edo eskelak@pilpilean.eus

Hil diren herritarren eskelak, oroigarriak eta urteurrenak argitaratzen dira aldizkarian eta Plaentxia.eus webgunean.

Tarifak:

- ▶ Arrunta: 75 / Bazkideek 60
- ▶ Handia: 120 / Bazkideek 96

Pil-pilean eta Plaentxia.eus: irakurrienak Soraluzen.

BETI ZUREKIN

GIPUZKOA

943 903 450

Bertako Igoailuek-ekin, urteko 365 egunetan 24 orduz izango duzu gure zerbitzua.
Salbuespenik gabe.



IDEAZKUN
ZUREKIN
 ZURE JARDUN
ELEKTRO
BERRUGAITZA
 BARRUTIA
KUTXA


www.bertako.eus


BISITA GIDATUAK

Maiatzaren 2tik 6ra

GOI MAILAKO ZIKLOAK M2
ERDI MAILAKO ZIKLOAK M3,4,5

*info gehiago gure
webgune eta sare
sozialetan*



943 20 32 44
eibar@armeriaeskola.eus
www.armeriaeskola.eus



"Etorkizun baten oraina"




ArmeriaEskola^x



LANBIDE
HEZIKETA
FORMACIÓN
PROFESIONAL

heziketa zikloak

**Erdi eta Goi mailako
zikloak
Especializazioak**

Elgoibar

Maiatzak 7

11:00etan

Informazio saioa

Hartu lekua!

